

metrokoadrokaren eskutik

su izan nahi

hildakoak, senideak eta maskotak
antzezlan




Zumalako Udala

San Agustín
KULTUR
GUNEA



CENTRO
CULTURAL
San Agustín



METROKOADROKA

*hildako guztien ondoan maite zaitut:
eta urteak eta hilak metatzen goazen eran
ez dakit nola kabitzen garen hainbeste jende
ohe bakarrean*

Jose Luis Otamendi, *Kapital Publikoa*

Iragana memorian existitzen da, HILIK!

Tadeusz Kantor

*Bai, su ez ezik,
sute izan nahi.
Eta, hala ere, pospoluak pizteko,
lanak!*

Su izan nahi antzezlana

SU IZAN NAHI: hildakoak, senideak eta maskotak

Sinopsia

Hotzak dauden bost lagun beroaren bila. Haien bizitzetan erabakigarriak izan diren hildakoak, senideak eta maskotak oroitzuz bilatuko dute falta zaien beroa.

Umorea, poesia bisuala, performancea eta diziplina artistiko ezberdinen arteko elkarrizketan oinarritzen da “**SU IZAN NAHI: hildakoak, senideak eta maskotak**” antzezlanaren antzezlanaren pertsonen bizitzak lotzen dituzten hariak jarraituz eginiko bidaia emozional bat.

Antzezlanaren aurkezpena

Metrokoadroka kolektiboak SU IZAN NAHI antzezlanaren sortzeko laguntza jaso du **Durangoko San Agustin antzokia** eta **Zumaiako Aita Mari antzokiaren** eskutik, ZUBI ekimenaren barruan. 2014-15eko neguan erresidentzia bana egin dugu antzokiotan, eta baita Errenteriako Niessen aretoan ere. **2015eko apirila eta uztaila artean** egin dugu **lehen emanaldi sorta** (ikus beherago emanaldien agenda).

Proiektu honetan **oholtza gainean diziplina artistiko ezberdinen arteko harremana** (poesia, pintura, musika, teatroa) ikertzen eta esperimendatzen jardun gara kolektiboko bost lagun: Idoia Beratarbide, Javi Barandiaran, Asier Sarasola, Ander Fernandez eta Oier Guillan.

Aurretik egindako POZA antzezlanean aktoreok benetan (eszenatik kanpo) garen horretatik **presentzia eszeniko bat** landu eta bilatu genuen, teatroaren **kontzeptio narratiboetatik at**, poesia eta pinturaren kodeetan oinarrituz. SU IZAN NAHI honetan ikerketa ildo horretan sakontzen saiatu gara, beste kode eszeniko batzuetara eramanez gure lana: norberaren egian oinarritutako presentzia eszenikoak bilatu ditugu, **umoretik batzuetan, performatibitateari loturiko kodeetatik besteetan, teatroruntz beti**.

Nola lortu benetakotasuna, gure presentzia eszeniko erreala ekintza poetikoetara eramanez? Nola lortu “egiazko” sentimenduetara eramatea publikoa, gure izen-abizenak dituen presentzia eszeniko absurdu batetik?

Funtsean “Teatro posdramatikoa” deitu izan den horren mugetan murgildu gara lan honetan, poetika bide, **kode eta diziplina artistiko ezberdinen arteko zubiak** bilatuz eszenan, umoreari eta publikoarekiko gertutasunari uko egin gabe. POZA antzezlanaren bitartez ikusi dugu, hain zuzen ere, posible dela **kode eszeniko berritzailetan nabigatu publikoarekiko komunikazioari uko egin gabe**, jendearen **bihotzera** iritsiz. SU IZAN NAHI proiektuaren bitartez bide horretan urrats berriak eman nahi ditugu.

Fitxa artistikoa

Oholtzan:

Idoia Beratarbide, Javi Barandiaran, Ander Fernandez, Asier Sarasola, Oier Guillan.

Laguntzaileak:

Durangoko San Agustin antzokia, Zumaiako Aita Mari antzokia (Zubi deialdia).

Eskerrik asko:

Zazpi t' erdi, Alvaro Ledesma, Dejabu, Marodi, Errenteriako Udala (Niessen auditorioa).

Parte hartzaileak banan-banan

Javi Barandiaran (Donostia, 1969) Donostiako TAEen ikasi ondoren Ados Teatroarekin hasi zen lanean eta ondoren Trapu Zaharra-rekin, gaur egun hauekin jarraitzen du antzezlan ezberdinetan parte hartuz. Aldi berean, bere sormen kaotikoa libre utzi eta J.B. Pedradas (bere alter-ego) zigilupean dihardu, neurri txikiko hainbat ikuskizun sortuz. Hala nola, *Errare Hymnvm Est*, *Pepinos Podridos (en el frigo)* eta *No Estoy Para Nadie*, guztiak karteleran oraindik. Hika taldearen *Hitzak* lanean parte hartu du, eta Huts Teatroaren *Etxekoak* antzezlanean ikusi berri dugu. Metrokoadrokarekin aktore-sortzaile jardun da *Poza* eta *Salto* lanetan, zuzendari artistiko *Zertarako hegoak* eta *Gabrielen lekua* lanetan.

Idoia Beratarbide (Oiartzun, 1977), pintorea eta ilustratzailea. Hainbat liburu ilustratu ditu haur eta gazte literaturan, pinturaren arloan *Memoria zulatua* izenekoa du erakusketarik berriena. Arte eszenikoetan zuzenean pintatzen zein arropak eta eszenografiak sortzen egin du lan, MARODI taldearen barruan. Eszena gainean *Poza* eta *Hura ez da lekua* antzezlanetan jardun berri da, jantzigile gisa *Zertarako hegoak*, *Gabrielen lekua* eta *Publikoari gorroto* lanetan egin du lan. Oiartzungo 100TZE sormen espazioa koordinatzen du egun.

Oier Guillan (Donostia, 1975), idazle eta kazetaria. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia eta antzerkiaren arloan, azkenak *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009), *Herio heroi/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013) eta *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016). Poesia beste arte diziplinekin uztartzen egin du lan hamaika ezena lanetan, azkenak *Poza*, *Gabrielen lekua* (TTak teatroa, Andoni Egaña, Rafa Rueda eta Alain Urrutiarekin batera) eta *Nola belztu behar zuria* (Bide Ertzean taldearekin batera). Idazle-zuzendari gisa *Zertarako hegoak* eta *Salto* ditu azken lanak.

Ander Fernandez (Donostia, 1981), musikaria. Musikari-sortzaile gisa Rouge Elea, Dejabu eta Metrokoadroka taldeekin egin du lan, argizatzaile-sortzaile gisa ere Anakrusa taldearekin. Muskulo musika taldeko kidea da. Bere musikak entzun daitezke *Hura ez da lekua* disko-liburuan (Txalaparta, 2012), eta *NigaraZuek* proiektuaren webean zein diskoan (2016). *Poza* antzezlanean aktore-musikari-sortzaile. Berriki *Zuek* kale antzerki musikatuarekin ezagutu du hamaika plaza.

Asier Sarasola (Lezo, 1976), idazle eta itzultzailea. *Poems, everybody, poems!* (batBada, 2010) eta *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012) liburuetan irakurri daitezke bere testuak. Poesia ikuskizun ugarietan parte hartutakoa da testuak idazten, errezitatzen eta antzezten, azkenak *Poza* eta *Nola belztu behar zuria* (Bide Ertzean taldearekin batera).

Metrokoadroka kolektiboa

Metrokoadroka hainbat arte diziplinetan gabiltzan hamaika lagunek osatu dugun kolektiboa da. Artistentzako plataforma gisa eta sorkuntzarako elkargune gisa tresna eraginkor bat sortzea da gure asmoa.

Metrokoadrokaren helburua honakoa da: hala arte eszenikoetan nola arte plastikoetan sor daitezkeen proiektuak laguntzea, zabaltea eta batzuetan sortzea. Beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimendario lehentasuna emanez. Arte diziplina ezberdinen arteko elkarrizketa eta elkarlana da esperimendario horren oinarri nagusietako bat.

Metrokoadroka harreman artistikoen sare antolatua da, eta horri esker gauzatzen ditu proiektuak. Sare horretan parte hartzen dugunok banakako edo taldeko proiektuak aurrera atera ahal izateko eskaintzen diegu besteei gure ahala.

Kultura beste modu batean ulertzeko, egiteko eta kudeatzeko beharra dagoela uste dugulako antolatu gara modu honetan. Proiektuak sakontasunez, seriotasunez eta ausardiarekin sortzea da gure erronka, auzolanean eta harremanen sareetan oinarrituz gure lana.

Harremanetarako

Metrokoadroka kolektiboa
metrokoadroka@metrokoadroka.eus

[http://metrokoadroka.eus/proiektua/su-izan-nahi/
metrokoadroka.eus](http://metrokoadroka.eus/proiektua/su-izan-nahi/metrokoadroka.eus)

679977276

TEASER

<https://www.youtube.com/watch?v=YZxxnDz5NU>

Lehen emanaldien egutegia (2015)

Apirila:

- 18- Durango, ESTREINALDIA San Agustin antzokian
- 19- Azkoitia, Matadeixa
- 25- Bilbo, Pabellon 6 (Loraldia)
- 26- Oiartzun, Udal Pleno aretoa

Maiatza:

- 8- Zumaia, Aita Mari antzokia
- 16- Gasteiz, Baratza aretoa
- 29- Azpeitia, Soreasu antzokia

Ekaina:

- 21- Orereta (Eztena jaialdia)

Uztaila:

- 18- Ea, Eskolondoko pilotalekua (Poesia egunak)

Kritikak

BERRIA: http://www.berria.eus/paperekoa/2076/031/002/2015-04-21/txori_bat_etxean.htm

GARA: <http://www.ehaze.eus/euskara/kritikak/loratzeak-eta-zimeltzeak>

ARGIA: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2460/gure-hildako-guztiak>

SU IZAN NAHI – ARGAZKIAK





Alvaro Ledesma



LAGUNTZAILEAK:



Zumaiako Udala